

4. GAIA

POBREZIA ETA BAZTERKETA SOZIALAREN INGURUKO HAUSNARKETA ANTROPOLOGIKOAK



Aurkibidea

4. Pobrezia eta bazterketa sozialaren inguruko hausnarketa antropologikoak
 - 4.1. Oinarrizko irizpideak
 - 4.2. Bazterketa soziala eta kulturala kontzeptuaren bilakaera
 - 4.3. Bazterketa soziala eta kulturalaren inguruko oinarrizko teoria interpretatzaileak
 - 4.3.1. Chicago-ko eskola
 - 4.3.2. Pobreziaren kulturaren eskola
 - 4.3.3. Teoria Neoklasikoa
 - 4.3.4. Teoria Kritikoa
 - 4.3.5. Azpliklasearen teoria
 - 4.4. Txirotasuna bazterketa soziala iturri bezala
 - 4.5. Ondorioak
 - 4.6. Bibliografia

Gaia honetan, ikuspegi antropologiko batean oinarrituz, marginazio soziala eta kulturala nahiz, honek, beste errealitate sozialekin duen elkarlotura aztertzen da. Hala nola, bazterkeria, diskriminazioa, segregazioa, e.a.

XX. mendetik aurrera, teoria ezberdinak ekoiztu dira kontzeptu honen inguruan, hura, Antropologia eta Soziologiaren ikuspegitik ulertu ahal izateko. Jarraian, marginazioaren inguruan sortu diren tesi garrantzitsuenak aztertuko ditugu.

4. 2. Bazterketa soziala eta kulturala teoriaren inguruko oinarritzko premisak

Marginazio soziala eta kulturala delako fenomeno aztertu baino lehenago, jarraian jasotzen diren premisak kontutan hartu behar dira.

- I. Marginazio prozesuak ulertu ahal izateko, lehenago, hura mantentzen laguntzen dituzten baldintza soziala, instituzionala, e.a. ezagutu behar dira. Lehenik eta behin, marginazioa ezin da prozesu natural baten moduan ulertu. Bigarrenik, marginazioa, antolakuntza sozialaren ondorioa da eta berezko izaera eta adierazteko forma dauka.
- II. Marginazioa ez da bakarrik prozesu ekonomiko eta geografikoen ondorioa, erabaki politiko eta botere estrategien emaitza da ere.
- III. Kultura eta sinboloak (kultura sistema sinboliko moduan ulertua), marginazio soziokulturalen arrazoa izan daitezke.
- IV. Marginazioa, bazterketa eta diskriminazioa kontzeptuak sinonimo moduan erabiltzen dira ñabardura ezberdinak izan arren:
 - a. Marginazio soziala: gizataldeak edo pertsonak ordena sozialatik sistematikoki eta modu integral batean ateratzeko prozesua.
 - b. Diskriminazioa: botere erlazioetan oinarritzen den prozesua zeinak pertsonak edo gizataldeak gizartetik banatzean datza hauen berdintasun printzipioa urratuz.
 - c. Bazterketa soziala: banaketa edo marginazio mota zehatz bat da, bereziki, arlo ekonomikoa eta geografikoaren eraginez ematen dena.

Kontzeptu hauen arteko bereizketa ez dago erabat argi. Guztiek prozesu sinboliko, ekonomiko, politiko, e.a. ondorioz gertatzen dira. Ondo bereizten jakin behar da, ordea, ezberdintasun kulturalengatik ematen direnak (adb.

Ijitoena), boterearen logikaren ondorioz gertatzen direnak (adb. Emakumeenganako diskriminazio zuzena ala zeharkakoa) edo produkzio bidetara iristeko ezintasunagatik sortzen direnak (adb. epe luzeko langabetuak)

- V. Marginazioa ez da egoera edo behin betiko produktua, etengabe aldatzen ari den prozesua baizik. Prozesu hau, gizarteak berezkoak egiten dituen boterearen irizpideren arabera aldatzen da. Gizarteek, norbanakoak marginazio egoeretan mantetzen dituzte, gizakideek onartutako dispositibo batzuen ondorioz.

4.2. Bazterketa soziala eta kulturala kontzeptuaren bilakaera

XIX. mendearen erdialdean, gizarte gehiengodunaren hainbat sektore sozialek bizi zuten ezberdintasun egoerari buruz hitzegiten hasten da. Gogoeta eta hausnarketa hauek guztiak emakumeek bizi zuten egoera eta gizarteak pertsona beltzen aurrean zuten jarrera aipatzeko hasi ziren.

1970ko hamarkadatik aurrera, gizartearen talde batzuek pairatutako bazterketa dela eta, ezberdintasun sozial modu berriak agertzen dira. Gizartearen segmentu (segmentu banatua) bat gizartean (gehiengoduna eta gainartzailea) parte hartzeari usten dionean bazterketa sozialari buruz hitzegiten hasten da. Egoera hori ernarazten duten arrazoiak, batez ere merkaturako sarreratik eratorriak dira.

Hainbat talde etnikoek gizartean jasaten zuten bazterketa izendatzeko, bereizkuntza edo segregazio kontzeptua sortzen da.

Aurreko prozesuak ez daude faktore bakar baten menpe, baina prozesu bakoitzean faktore bat besteen gaineratik nagusitzen dela, begi-bistakoa da:

- Bazterketa: Faktore ekonomikoak, merkaturako sarrera eta espazioaren antolamendua.
- Diskriminazioa: Ahalmen faktoreak, berdintasun printzipioaren zaurzapena.
- Segregazioa edo bereizkuntza: kultur eta etnia faktoreak.

Azken hau, bazterketa soziokulturalaren kontzeptuaren sinomino bezala erabili daiteke.

Kontzeptu hauen guztien garapen analitikoak 1960ko hamarkadan sortu ziren arren, lehenago, 1920ko hamarkadan EEBB-etan errealitatearen saiakera analitiko garrantzitsuak ernatu ziren.

Robert Park Chicagoko eskolaren (1928) fundatzailea izan zen. Bere inguruko errealitate sozialak sotu zion interesa. Chicagon, 1920ko hamarkadan, gizarteratzeko arazo larriak zituzten taldeak zeuden, hori dela eta auzo marginaletan bizi ziren (*slums*). Talde hauen marjinazioa lurralde zatiketa zein ekonomi zatiketa eragiten zuen. Aparteko ezaugarri soziokulturalak zituzten talde gutxiengoak gizarte gehiengo eta nagusiaren harremanetatik at bizi ziren. Hau ere bizitzeko espazioaren antolamenduan isladatu zen. Horregatik, Park-ek, hiri planikazioaren ikerketetak benetako espazio-fragmentazioa ezagutzeko eta marginalitate egoerak gainditzeko estrategia moduan erabili zituen.

Aurrerago, 1960ko hamarkadan, Oscar Lewis-ek hiriak hedatzen direnean nola irentsi egiten zituzten Park-ek esandako auzo marginalak frogatu zuen. Hala ere marginazioa existitzen jarraitzen zuela ikusita, marginazioa funtsean kulturala zela, eta ez territoriala, ondorioztatu zuen. Marginazio mota hau, ez da aurrekoa bezain ikusgarria eta honi erreferentzia egiteko, pobrezia kultura kontzeptua erabili zuen. Kontzeptu honek Eskola honi izena eman zion ere. Lewisen arabera, marginazioa arazo kulturala zen heinean, irtenbide bakarra gizatalde marginatuen integrazioa zen.

Aurrerago, teoria hauetan sakontzen jarraituko dugu, orain aipatu dira berriz, marginazioa kontzeptuak historian zehar izan duen garapena ulertzeko. Teoria hauetatik ondoriozta daiteke:

- Marginazioa, marginatutako taldearen berezko ezaugarrietatik ondorioztatzen da. Bere ezaugarri soziokulturalen ondorioz, honek gizarte gehiengoduneari partehartzeko arazoak aurkezten ditu. Beraz, talde marginatuaren ezaugarri fisiko, kultural, sozial, e.a.-en ondorioa da marginazioa.
- Ez dago inolako loturarik talde marginatua eta gizarte gehiengodunaren artean. Marginazioaren sortze prozesuak ez dauka loturarik gizarte menperatzailearekin.

Hala ere, bi teoria hauek erreformatzaileak dira marginazioa, integrazioarekin batera aztertzen dutelako. Azken honekin batera, asimilazioa kontzeptua sortzen da. Honek zera esan nahi du, integrazioarekin batera, normalkuntza ere ematen dela. Ideia guzti hauen inguruan eskuhartzearekin zerikusia duten teoria ezberdinak sortzen joan ziren zeinen helburua, marginazioari amaiera jartzea zen.

Chicagoko Eskolak nahiz Pobreziaren Kulturarena, errealitate honen analisirako ikerketa etnografiko ugari ekoiztu zituzten. Marginazioaren aurrean estrategia plurala edo anitza erabitzearen beharraz hitz egin zuten ere. Lan eredu honek, beraz, ekonomiaren analisia boterea, kultura, politika e.a.rekin batera egitea ahalbidetzen zuen.

1970. hamarkadatik aurrera eta lehenago aipatu den moduan, ezberdintasun sozial forma berriak agertu ziren. Guztiek, marginazioa ulertzeko moduan eragina izan zutelarik. Orduetik aurrera:

- Marginazioa ez da bakarrik talde minoritarioaren ardura izango. Marginazioa, arau, baliabide, baldintza sozial, e.a.-en emaitza moduan ulertzen hasi zen. Ondorioz, marginazioaren ardura, lehen aldiz, gizartea gehiengodunearan kokatuko da. Hau, talde minoritarioen marginazio egoeraren erruduntzat hartuz.
- Ezaugarri estukturaletan (ekonomia, demografia, politika...) jartzen da arreta.

Ondorioz, lehen aldiz, marginazioa, gizarteko hainbat taldek, gizarte gehiengodunaren baliabide sozialei, araei, ekintzei, e.a.ei heltzeko duten aukera falta moduan definitzen da.

Aurreko bi teoretara bueltatzen gara (Chicagoko Eskola eta Pobreziaren Kulturaren Eskola). Hauek, XVIII. mendean Europako pobreziaren inguruan ekoiztutako teoria handietan oinarritzen dira (deuseztatze hain zuzen ere). Pobreziaren Teoriaren arabera, dirugabeek, merkatu ekonomia motara egokitzeko arazoak dituzten pertsonak dira. Pobreziak sortutako desberdintasun soziala norbanakoaren errua zen, ekonomia kapitalistak eskeintzen zituen onurak aprobetxatzen ez jakiteagatik eta ondorioz, bere nortasun soziala galtzen uzteagatik.

XVIII. mendetik XX. mendera arte, aurreko ikuspegiaren ondorioz, pobreziaren gaineko kontrola benefizientziarako instituzioen bitartez egiten zen. Aurrerago, Estatuak, norbanako ezegokitueta arduratu zen internazio zentruak sortzen (psikiatrikoak, kartzelak, e.a.)

Pobreziaren teoriarekin jarraituz eta bereziki, honek, marginazioaz egiten zuen interpretazioaz, hau, bi norbanako motetan ematen da:

- Arrazoi ezberdinengatik, gizarte gehiengodunaren lan merkatuan edo kulturaren integratu ez diren pertsonak baina integrazioarekiko duten jarrera positiboa da. Hauek, egokitzeko aukerak badituzte oraindik.
- ‘Pobre duingabeak’ (Malthus), jokamolde patologikoa erakusten dute eta ondorioz, gizarte gehiengodunaren balore sistemara egokitzeko arazoak dituzte eta ez dute horretarako asmorik auzten ere ez.

Marxismoak, logika soziala indibidualaren gainetik kokatzen du marginazioa. Marxismoaren aburu, pobrezia kapitalismoaren ondorioz suertatzen diren erlazio sozialen emaitza da eta ez ordea, arazo indibiduala. Marxismoak *lumpenproletariado* (edo azpiproletalga) kontzeptua sortu zuen Malthusek, pobre duingabeak bezala esagutzen zituen pertsona horiek izendatzeko. Hau da, beraien jarrera marginala edo deliktiboaren ondorioz, lan merkatuko baldintzetara egokitzen lortzen ez zutenak. Ondorioz, Marxek bi norbanako mota bereizten ditu. Alde batetik, klase ideologia barruan daramatzatenak eta bestaldetik, langile duingabeak, delituak egiten dituztenak (*lumpenproletariado*). Hauek, langilego klasearentzat kaltegarriak dira Marxen teoriaren arabera.

4.3. Marginazio kulturala eta sozialaren inguruko oinarrizko teoria interpretatzaileak.

Lehenago aipatu izan den moduan, Antropologia eta orokorrean, Gizarte Zientziek, marginazio kontzeptuaren inguruan eta honekin lotura dituzten beste batzuen inguruan ere, interpretazio ugari ekoiztu dituzte. Jarraian, teoria aipagarrienak aztertuko ditugu.

4.3.1. Chicagoko Eskola

1920. hamarkadan Robert Park antropologoak sortu zuen Estatu Batuetan. Hau, aintzindari teoriko garrantzitsuan bilakatu zen beste ikertzaile batzuentzat, gizarte gehiengodunaren integratzeko arazoak dituzten pertsonen azterketan, alegia.

Chicagoko Eskolak, hiri-espazioa irizpidean jarri zuen arreta. Horrenbeste sakondu zuen honetan, hiri planifikazio politikak, gaur egun ere, bere printzipio nagusietan oinarritzen jarraitzen dutela. Tesi honen arabera, hiri berrantolaketari esker, norbanako eta gizataldeen integrazioa bidezkoa dela, da. Integrazioa, berriz, gizarte gehiengodunaren funtzionamendu eta jokatzeko arauak asimilatzea da Parkentzat.

Chicagoko Eskolaren irizpide nagusietatik zera ondoriozta daiteke, espazio fisikoa marginazioa bultzatzeko toki pribilegiatua da, bertan, interakzio soziala gertatzen baita. Beraz, espazio horretan eskuhartuz eta zonalde marginalak hiri zentruarekin erlazionatuz, benetazko erreforma soziala lortu zitekeela uste zen. Azken helburua, XVIII. mendeko pobre duingabeen ideiarekin amaitzea zen, zeinaren arabera, pobrezia, egoera naturala zen, hau da, norbanakoen izaera naturalean zegoena. Baina Park eta bere ondorengo aburu, bazegoen pertsona marginatuak integratzeko eta asimilatzeo aukera espazioaren berrantolaketari ekinez.

Planteamendu teoriko hauek oso berriztatzailak izan ziren eta aldaketa nabariak ekarri zituzten:

- Gizarte Zientzia guztien berriztaketaren teoriko eta metodologikoa ekarri zuen, izan ere, lehen aldiz, antropologia hirian aplikatu zen (gizarte konplexuak)
- Hiria eta konkretuki, *ghetto*-a, produkzio kulturalerako gunea delako ideia sortzen da
- Hiria, espazio heterogeneo eta konplexua delako ideia sortzen da, hiri idilikoaren ideiarei kontrajartzen dena (klase ertainetako, gizon txuriena).

Espazioaren berrantolaketarekin batera, toki edo espazio marginalen osasun kaltegarritasunaren inguruko eztabaida sortzen da. Egoera honi aurre egiteko lehen Zerbitzu Sozialak sortzen dira.

Aipatutako lehenengo ideia berriztatzailaren inguruan, Chicagoko Eskolak, lehen aldiz, Antropologia eta Soziologiaren arteko etena edo haustura egiten du (ordura arte Antropologia Soziologiaren azpidisziplina baten moduan ulertzen zen). Chicagoko Eskolak, Antropologiari gizarte konplexuak aztertzeo aukera ematen dio, ordura arte gizarte sinpleak aztertzeo erabilitako metodologia berdina, gizarte konplexuetan erabiliz. Modu honetan, marginazioarekin loturik, arazo sozialak aztertzeo lehenengo ikerketa kulturalak ekoiztu ziren.

Espazioa eta marginazioaren azterketa, bereziki, hainbat hiri espazioek bizi zuten osasunerako egoera kaltegarriari ekinez egin zen. Auzo pobreek bizi zuten, bereziki, osasun kalterako egoera eta infekzioak ekiditzeko, ezinbestekoa zen bertan eskuhartzea. Arazo hauei aurre egiteko, espazioaren berrantolaketari buruz eta zerbitzu sozialak antolatzeo beharri buruz hitz egiten hasi zen.

Chicagoko Eskolaren beste ekarpen garrantzitsua, esan bezala, *ghetto* kontzeptua izan zen. Hau, zona edo toki maginala da non, bertan ekoizten diren erlazio sozialen ondorioz berezko kultura bat dagoen ere. Wirthen arabera, *ghettoa*, hiriko kanpoaldea da eta berezko kultura bat duenez, kanpoan geratzen da bai fisikoki nahiz kulturalki ere. Parken arabera, gizatalde bakoitzak bere *ghettoa* sortu eta mantentzen zuen eta horregatik ere, hau, isolamenduaren sinbolo fisikoan bilakatzen zen. Antropologiak, gizarte konplexuetan 'bestea'ren inguruko azterketa egiten hasten da *ghetto*-ko biztanleekin, hain zuzen ere. Honetan datza, hain zuzen ere, marginazioa ikuspegi antropologikoatik planteatzea.

Ghetto-ari dagokionez, hau bi edukien gainean esartzen da:

- Eduki soziokulturala: *ghetto*-an, bertan bizi diren gizatalde sozialen (etnikoak) protagonismoa, ekintza eta eskuhartzea ematen da. Gizatalde marginatuak ez dira jokamolde desbideratuen ondorioz jarrera pasiboak erakusten dituzten pertsona odolgabeak. Guztiz kontrakoa, kultura, balore, jokamolde, e.a. zehatzak ekoizten duen taldea da. Aurrerago, 1990. harmarkadan erakutsiko den moduan, *ghettoa* ez da bakarrik produkzio kulturalerako gunea bertan, biziraupen ekonomikorako estrategiak ere ekoizten baitira.
- Eduki espaziala: *ghettoa*, hiriaren atala da, erlazio ekonomiko eta politikoen ondorioz sortutako espazioa, alegia. Ez da naturala. Chicagoko Eskolaren helburua *ghettoekin* amaitzea izango da eta horretarako, barruko logika ezagutzea eta deuseztatzea izango da. Azken helburua, *ghettoa* osatzen dituzten norbanakoak, gizarte gehiengodunean integratzea eta asimilatzea izango da, hau da, hirian sartzea.

Aurreko planteamenduaren aspektu garrantzitsu bat, *ghetto*-aren naturalizazioa desagerraratea eta hura, estrategia soziokultural ezberdinek sortutako espazioa bezala definitzea da. Ideia berriztatzailea da zeren:

- Marginazioa ez da gizakiaren egoera naturala baizik eta kulturak sortutako egoera.
- Kulturari emandako garrantzia ezinbestekoa izango da 1960 hamarkadatik aurrera, hezkuntzak, marginazioaren kontra izan dezakeen garrantzia azpimarratzeko.

Chicagoko Eskolak *ghetto*-etan ekoiztutako kulturak aztertu zituen eta honek, hainbat funtzio betetzen zituela eta hainbat beharizan asetzen zituela ikusi zuen:

- *Ghetto*-ko kulturak, etnien arteko gatazkak gainditzen laguntzen du. Ondorioz, muga zehatz batean bizi den komunitatearen kontrol mekanismoan bilakatzen da.
- Talde isolamenduaren beharrianak asetzen ditu eta gizatalde meneratzailearen aurrean, defentsa mekanismoa izango da.
- Hiri hazkudearen prozesuaren aurrean bereizten laguntzen du.
- Aldaketa soziala prozesu baten aurrean edo testuinguru ezagun batetik ezezaguna den beste baterako aldeketan, taldeen artean ager daitezkeen gatazkak leuntzen ditu
- Marginazioa eta talde minorizatuaren isolamendua sortzen duten mekanismoen desegite prozesua leuntzen ahalbidetzen du
- Testuinguru gatazkatsua eta aldakorrean, norbanakoen izaera eta balioak moldatzen laguntzen ditu eta era berean, balio berriak eta kontrol sozialerako mekanismo berriak agerrarazten ditu.

Ondorioz, Chicagoko Eskolak, hiriaren inguruko ikuspegi heterogeneo eta konplexua eraikitzen du eta honek, hiria espazio ordenatuaren ideia kontrari egingo du. Heterogeneitatea, espazioa ezezik, baita norbanakoen konplexutasuna eta aniztasuna onartzeko ezinbestekoa da. Horretaz gain, hiri testuinguruaren ikerketa antropologikoari esker, norbanakoen jokamolde tipologia ezberdinak antzeman daitezke eta baita, norbanako guztiak, funtsean, berdinak garela.

4.3.2. Pobreziaren Kultura Eskola

Pobreziaren Kultura teoria, 1960. hamarkadan sortu zen, besteak beste, Chicagoko Eskolak aipatutako hainbat ideiekin jarraitzeko asmoarekin baina baita ere, honen muga teorikoak gainditu nahian. Oscar Lewis izan zen honen aintzindaria.

1950. hamarkadatik aurrera, *shun*-ak, hirietan integratzeko helburua zuten hirigintza eta etxebizitza politikak hasi ziren ekoizten. Hauek porrot egin zuten auzo marginatueta bizi ziren pertsonak erdialdera bizitzera joan zirenean, kolonizazio prozesu bat ematen hasi zelako. Honetaz gain, Bigarren Mundu Gerra osteko hazkunde ekonomikoaren ondorioz, ertain klase bat sortu zen zeinak hiri-ingurueta bizi kalitate hobea eskeini zezaketen espazioetan bizi ahal izatea aldarrikatzen zuten.

Aldaketa soziala ahalbidetu zituzten hainbat ezaugarri:

- Ongizatearen Estatua garatzen hasten da 1920. hamarkadatik aurrera
- Lan munduan aldaketak ematen dira sindikatuek, taylorismo izeneko lan prozesua onartzen dutenean. ‘Lanaren antolakuntza zientifikoa’-k, taylorismoa industria osora zabaltzea ahalbidetzen du eta honela, ordura arte ezagutzen ez zen produktibitate handia lortzen hasi zen. Baina era berean, eskaeraren arazoa ematen da; ez daude kontsumitzaile nahikorik horrenbeste produkzioarako. Fordentzat, honen konponbidea soldatagabeak, soldatapekoak bihurtzea, eta ondorioz, kontsumitzailean, izan zen. Hau lortzeko ezinbestekoa izan zen:
 - Pertsona guztientzako oinarrizko soldata
 - Industrian inbertsioa egitea langilegoa handitzeko eta era ondorioz, kontsumitzaileak.

Aurreko guztia industriaren hazkundera, aberastasuna eta era berean, lana, ekarri zuen. Modu honetan, 1950. hamarkadara arte, marginatuak bizi izan ziren pertsona guztiak (dirugabeak, bereziki), bizitza sozialean partehartzeko aukera izaten zuten, lehen aldiz.

Guzti hau baino lehenago, 1930. hamarkadan, J.M.Keynes ekonomistak, lantegietako langilegoaren aldarrikapenei aurre egiteko konponbidea proposatu zuten. Akordio soziala eta politiko bat zen zeinaren arabera, biztanlego osoa, bi diru iturri mota ezberdin izan behar zituen:

- Osagai zuzena: hilabetero kobratzen dena
- Zeharkako osagaia: langilegoak ez du kobratzen, bere ordeztatuak kobratzen du eta honek, diru hori eraikuntza berriak eraikitzen, zerbitzuak eskeintzen, e.a. zuzenduko du. Hau da, Estatua eta industriak, biak batera, oinarrizko zerbitzu sozialen eraikitzaileak (osasuna, hezkuntza...) izango ziren. Honela hasten da Ongizatearen Estatua.

Laburbilduz, 1950. hamarkadatik aurrera, pobrezia eta marginazioa desagerrarazteko ahalmena dago, hala ere, ez da lortzen. Gainera, ezaugarri ekonomikoei, momentu historiko honetan, gizartearen osaketa multietniko berria gehitu behar zaie.

- Txuriak ez diren immigrante berriak agertzen dira Estatu Batuetan. Kultur arazoei, orain, azalaren kolorea gehitzen zaie.
- Mundu mailan, Ipar-Hegoaren arteko menpekotasun erlazioak sistema kolonialagatik ordezkutzen dira. Estatu independente berriek, Estatu zentralaren baldintzak onartu behar dituzte beraien ekonomia kontrolatzeko ahalmena ez baitute.

Aurreko aldaketa guztiak eta beste batzuk ere, ordura arte marginazioari buruz zegoen ideia (Chikagoko Eskolarena) birplanteatzea dakar. Pobreziaren Kulturaren teoriak, hurrengo galdera egin zuen: nola da posible, bizi den hazkunde ekonomikoa eta gero, oraindik ere pobrezia existitzea? Gizarteak aurrerakuntzan sinisten zuen, gizartearen barruan bertikalki hazteko aukeran, baina hainbat gizataldek eta pertsonak aukera hori ez zutela aprobeztatzen ematen zuen.

Ondorioz, Lewis, hainbat ikerketen ostean, pobrezian eragiten duen faktore bakarra ekonomikoa ez dela baieztatuko du. Lewisek, arazo guzti hauek familia instituzioan aztertu zituen eta bere lanetik lortutako hainbat ondorio hauek dira:

- Espazio marginalak desegituratze familiarra edo gizataldeen desegiteagatik sortzen dira. Beti ere, pasibitatez eta etsipenez ematen delarik.
- Pobreziaren kultura, pobrezia materiala eta ekonomikoatik bereizten du. Kointziditu dezaketen arren, bi errealitate ezberdinak dira. Hala ere, badira urritasuna eta eskasiarekin bizi ez diren pertsonak baina pobreziaren kultura daukatenak, hau da, bizimodu zehatz bat, belaunaldiz belaunaldira transmititzen dena sozializazio familiarri esker.
- Desantolaketa familiarra, txurien familia antolakuntzaren kontrakoa da.

Hortaz, teoria honen arabera, pobrezia desantolaketa familiarri esker erreproduzitzen da. Marginazioaren produkzioaren oinarrian dagoen ezaugarria prozesu jarraikorra, iraunkorra eta aktiboa da. Desegituraketa sortzen duen errealitatea da.

Chikagoko Eskola ez bezala, honek zera dio, norbanakoak balio sozialak bereganatzen dituenean, ezinezkoa da horietatik libratzea. Norbanako hauengan ez dago konpetitibaterik (ulerkera modernoaren arabera), biziraupena baizik. Beraien izaeraren ezaugarri dira inpulsoak ezin kontrolatzea eta orainan bizitzea (momentuan sortzen zaien beharizan emozionalak asetzeko premia epe ertain edo luzerako proiekturik ez dutelarik). Azkenik, garaiko gizartearen ezaugarria ez da marginazioa izango baizik eta zaurkortasuna.

Pobreziaren Kulturaren Eskolaren arabera, Chikagoko Eskolak proposatutako antolakuntza espaziala garrantzitsua bada ere, marginazioa gainditzeko ez da nahikoa. Ezinbestekoa da sozializaziorako beste mekanismo bat erabiltzea. Marginazioa, kontrol sozial sistema baten eta gizarte gehiengodunaren balio sistemaren ondorioa da. Hau dela eta, estrategia espaziala ez da nahikoa izango eta kulturala ere bultzatu behar da. Hau, hezkuntzaren bitartez lortuko da, honi esker, kulturek beraien testuingurura egokitze

ahalmena izango baitute. Helburua, beti ere, kultur marginatua hiriko espazio meneratzailean integratzea izango da horretarako, hezkuntzaz eta sozializazioaz baliatuz.

1970. hamarkadatik aurrera beste aldaketa estrukturala eman zen gizartetan, bai zentruan nahiz periferian. Aldaketa guzti hauen ondorioz, hiru teoria ezberdin sortu ziren marginazioa azaltzeko. Hirurek, talde marginatuak bere gizarte gehiengodunarekin erlazioan aztertuko dituzte. Marginazioa, gizatalde eta norbanakoek eta gizartearen arteko harremanetatik sortzen dela baieztatuko dute ere. Ikergaia aldatzen da, orain, marginazioa, gizartearen barruan emandako aldaketa egituratzaileen ondorio bezala aztertzen da.

4.3.3. Teoria neoklasikoa

Berriz ere, ekonomia gizarteko beste aspektu guztiak artikulatzen duena delako ideia erreperatzen da. Ekonomia, autonomikoki aritzen den errealitatea da eta ondorioz, ez da egokia bere gain eskuhartzea.

Teoria honen oinarrian, pentsamendu neoliberala dago zeinaren arabera, merkatua da gizartea klasetan antolatzen duena. Liberala izateaz gain, erabilkorra ere bada zeren gizartea, merkatu sistemaren barruan beraien interesen alde borrokatzen duten norbanakoen batura dela baieztatzen baitu.

Ondorioz, krisi ekonomikoak, beste aspektu guztien krisia dakar ere (Estatua, balioak, e.a.)

4.3.4. Teoria kritikoa

Marx eta Keynesen arabera, merkatua nahitaezkoa da baina Estatuak arautu behar du. 1970. hamarkadatik aurrera gertatuko mundu krisia ez da ekonomikoa, baizik eta politikoa.

Krisiaren jatorria, ordena sozial berriaren elementuak sortu zirenean:

- Lanaren banaketa internazional berria

- Gizarte garatuen desindustrializazioa
- Hirugarren sektorearen zabalkuntza azkarra
- Hegoaldeko industrializazioa eta metropolizazioa

Aurreko aldaketa guztiek, lan merkatuaren desegituratzea dakar eta honek, era beran:

- Lan prozesuen segmentazioa: erdiguneko zonalde batetik murgildutako zonaldeetarako desentralizazioa
- Berrestrukturazio prozesuak: sindikatuen botere galtzea, soldata finkoa galtzea, negoziatorako boterea galtzea, afiliatuen kopurua galtzea, e.a. Azken finean, Estatuarekin negoziatzeko ahalmena galtzea.

Aipatutako bi aldaketek, Ongizatearen Estatuaren galera dakar. Honetaz gain, Estatuak ere krisi fiskal larria jasango du.

- Hala ere, legitimatzaile sozialaren papera bete behar du
- Arautzaile sozialaren papera ezin du bete eta egoera hau izan arren, gastu sozialarekin jarraitzen du
- Ertain klase ezberdinak sortzen dira
- Globalizazio ekonomikoa ematen da eta lan indarrean honela eragiten du:
 - Lan eta formakuntza egituraren kualifikazio berria
 - Kontratazio moduan aldaketak; malgua eta prekarioa
 - Lan malgutasuna goi mailako estatusarentzat ona bada ere, behe mailarako, ordea, txarra da.

Internazionalizazioa eta globalizazioaren ondorioz, ordura arte oinarrizko orekan bizi ziren hainbat sektore sozialek prekariedade egoera batean bizi dira orain. Ongizatearen Estatuaren krisiarekin batera, oreka sozialean bizi ziren norbanako eta gizatalde ezberdinek pobrezia egoera batera pasatzen dira. Honela, 1980.tik aurrea, lan prekariedadea eta pobrezia da marginazio iturri nagusia.

Orokorrean, Zerbitzu Sozialak ere murrizten dira eta orain, euspen mekanismoak dira eta ez barneratze sozialerako baliabideak. Egoera honekin batera, Zerbitzu Sozialen pribatizazioa gertatzen da. Goi kalitateko zerbitzuak sortzen dira, goi mailako klase sozialen beharrak asetzera zuzentzen direnak; unibertsitate ikasleak, hirugarren adina, e.a.

Ondorioz, egitura aldatzen da eta marginazioa, errealitatea garrantzitsu batean bilakatzen da. Espazio marginatuetao kulturaren ideia desagertzen da eta baita ere, marginazioa jasaten duen sujetuarena. Planteamendu hauen ondorioz, Azpiklasearen Teoria sortzen da.

4.3.5. Azpiklasearen Teoria

1980. hamarkadatik aurrera garatu zen teoria hau testuinguru soziopolitiko eta ekonomiko berriaren ondorioz. Azpiklasea norbanakoen talde heterogeneoa da. Marginatuak ez dira berriak, bai ordea, marginazio prozesuak. Azpiklasea osatzen duten norbanakoak dira:

- Dirugabe pasiboak: gizarte aldaketek sortutako egitura berrietara egokitzen lortzen ez direnak. Estatuaren laguntzekiko menpekotasun kronikoa adierazten dute. Modu honetan, Estatuak ez du sujetu hauek marginazioatik irtetzen laguntzen, are gehiago, egoera hori elikatzen du.
- Delinkuentzian eta drogen munduan bizi diren pertsonak
- ‘Trapitxeroak’: dirugabeak ala ez, biziraupena murgildutako ekonomian oinarritzen dute. Ez dituzte delitu bortitzak betetzen
- ‘Traumatizatuak’: bizi duten marginazio egoera huts egiteko pertsonalaren ondorioa da eta arrazoi ezberdinengatik eman daiteke; alkoholarekiko dependentzia, ‘*sin techo*’-ak, buru gaixoak, zahar isolatuak, e.a.

Aurreko guztiek, marginazio forma berriak dira eta guztiek, Malthusen pobre duingaberekin aldeniduz, antzerako ezaugarriak dituzte.

Azpiklaseak ez dauka berezko nortasunik norbanakoek egoera ezberdinetatik baitatoz. Amankomunean dutena zera da, beraien egoera, sistemaren berregituraketaren ondorio dela. Azpiklasea izateari uztea posible litzateke hauek, merkatu eta politika logikara sartzeko politika edo eskuhartze bereziak egongo balira. Hala ere, hau ez dago beraien esku izan ere hurrengo ezaugarriak ere badituzte:

- Kualifikazio falta
- Epe luzeko langabezia
- Asistentziazko Estatuaren barruan bizi diren familiak

Marginazioa, ondorioz, hein handi batean, izaera ekonomikoa duen prozesu estrukturalaren emaitza da; merkatuaren berregituraketa eta desindustrializazioa. Guzti honekin batera, Estatuaren eskuhartzearen berregituraketa ematen da ere.

Wilsonen arabera, marginazioa, hiri fenomeno bat da. Bereziki, talde minoritarioengan eragina izan duen desindustrializazio prozesua egon denean (latinoak, afroamerikarrak...). Talde hauek berezko kultura bat sortzen ari dira beti ere, gizarte gehiengodunaren aurrean, azpikultura bat delarik.

Wilson, sujetu hauen pentsakera, logika eta balioetara iristen zaiatzen da ere. Modu honetan, marginatuen jokamoldeak azaltzen zaiatzen da.

Azpiklasea modu honetan ulertuta, ez da bizi estilo edo bizitzeko forma bat baizik eta aukera posibleak murrizten dituen sistema konpetitibo bati erantzuna. Gainera, azpiklaseko kultura (azpikultura) belaunaldi batetik bestera transmititzen da ere.

Azkenik, Estatuaren kontrol mekanismoei esker, 'kanpotik' marginatu hauek ikusteko modua baldintzatzen dute ere. Marginazioa handitzen doan arren, hau, geroz eta ikusezinagoa da eta modu honetan, ertain eta goi klaseak lasaitzen dira (zentruan bizi den gizataldea eta babesten dituen programak sortuz)

4.4. Txirotasuna bazterketa soziala iturri bezala

Orain arteko teoria guztiek, txirotasuna oinarritzko faktore bezala sinalatzen dute kolektibo eta subjektuen marjinazio sozial eta kulturala azaltzeko. Dena dela, txirotasun mota hau besterik gabe ekonomikotzat hartu dezakegu, edo bestalde persektiba zabalago bat mantenduz beste dimentsio soziokulturalekin erlazionatu dezakegu. Existitzen den txirotasun bakarra ez da ekonomikoa; txirotasun kulturala, ideologikoa, harreman txirotasuna, eta bestelako txirotasunak ere existitzen dira.

Txirotasuna, lehenengo komunitate nekazariak komunalak izaten utzi zutenetik existitu izan da. Hala ere, inoiz ere ez da gaurko aberastasun polarizazioa ezagutu, inoiz ere ez dira hainbeste jende txirotasun egoeran bizi. Hau guztiaren erruduna gaur egun nagusia den sistema dela ematen du, sistema kapitalista alegia.

Estadistikek diote, kapitalismoak planeta guztiaren ehuneko 15-ari bakarrik abantailak eskeintzen dizkiola, ehuneko 30-a bere ondorioak pairatzen ditu eta ehuneko 55-a bizirauteko arazo oso larriak ditu. Kapitalismoa polarizazioa da, aberastasunaren kontzentrazioa. Munduko biztanleriaren %15-a planeta osoko aberastasunaren %80-aren jabea da. Teoriko askok ondorio hau baieztatzen duten arren, benetako arazoak irtenbideak bilatzen direnean sortzen dira. Eskeintzen diren konponbide guztiak ez dute kapitalismoaren oinarriko printzipioak zalantzan jartzen, ezta bere estruktura ere. Printzipioak honako hauek dira:

1. ‘Laissez faire’, bakoitzak bere etekin handiena bilatzen badu, merkatuaren esku ikusezinak denek irabaziko duten oreka lortuko du.
2. Hazi behar da, eta gero eta gehiago. Ekonomia mugarik gabe hazi behar da.
3. Ekonomia hazten bada, denak hobetzen gara. Hazkunde gora doan bitartean, enplegua eta aberastasuna ere hazi egiten dira.
4. Ekonomia pribatua izan behar du. Sektore publikoak dena pribatizatu behar du, ondasun banaketa egokiaren arduradun bakarra merkatua delako.
5. Ez dago epe luzerako astirik. Sistemak berehalako emaitzak behar ditu.
6. Gizadia izatearen erregea da, eta natura bere menpe egon behar du, hemen eta orain bere emaitzak ahalik eta hoberenak izan daitezen.

Siniskera hauek munduan gaur egun dauden marjinazio, txirotasun eta desberdintasun egoeraren arduradunak dira.

Gauer egunean, txirotasuna aipatzeko, ‘mesede gutxiagoko kolektiboak’, ‘ongizaterik gabeko kolektiboak’, eta horrelako kontzeptuak erabiltzen dira. Horrelako eufemismoen erabilera, errelitatearen ezjakintasuna eta zehazgabetasuna sortzen du, honela sistemaren boterea sendotzen delarik.

Txirotasunari buruzko ikerketak ez lirateke bakarrik zenbaki eta zifra kopuruetan oinarritu behar, txirotasuna sortzen duten faktoretan funtsatu beharko lirateke, prozesu konplexu hauek hausnartzeko.

‘**Txirotasun-muga**’ kontzeptua txirotasunari buruzko ikerketak egiten direnean erabili ohi da, baina ze pertsonak txiroak diren eta zeintzuk ez diren erabakitzea arazo metodologiko bat dakar. ‘Txirotasun-mugak’ terminu monetarioa ardatz bezala ezarrita, minimo bat finkatzen da: maila minimo honetara iristen ez dena txirotzat hartzen da.

Bestalde, badago ‘txirotasun-muga’ baino kontzeptu murriztaile bat: **txirotasun larriaren arriskua**. Honen ezaugarria, oinarritzko behar izanak gainditzeko objektiboki nahikoa ez den diru sarrera batengatik bereizten da.

Metaketaren pobrezia, etxe batean kontsumorako ondasunetara heltzeko eta bizi maila egokia izatako ezgaitasunarekin adtuka zerikusia. Ez da egoera zehatz bat baizik eta orokorra, ez da koiunturazkoa baizik eta egiturazkoa, hau da, bizi baldintzetan prekariedade egoera batean bizitzea. Oinarritzko ezaugarriekin dauka lotura; hau da, etxibizitzaren baldintza prekarioak eta bizirauteko nahiko ez den ondasuna.

Ongizate faltarako arrisku egoerek, ongizateko oinarritzko egoerara heltzeko diru sarrera gutxiegiekin dauka lotura. Zaurkortasun egoera larri batean bizi diren norbanako eta ditzaldeekin dauka erlazioa.

4.5. Ondorioak

1980. hamarkadatik aurrera, eredu ekonomiko kapitalistaren krisiak, pobre berriak, bazterketa arriskua, desfaborezituak, e.a. asko ekoiztu zituen. Produkzio sistema hegemonikoatik zetozen pertsonak ziren zeintzuk haren berregituraketarekin batera, marginazio egoera batera pasa ziren. Pobrezia eta ondorioz, marginazioa, ez zen gutxiengo etnikoen arazoa bakarrik, sistema berak baztertutako marginatu berriak sortzen dira.

Muga, hau da, pertsona baten pobrezia eta marginazio egoera neurtzen duen neurria, klase ertaina izango da. Ertain klasea eta bere balio sistema normaltasunaren adierazgarria da eta bertatik aldentzen den guztia marginala, gabetua, pobre, e.a. bezala ulertuko da. Egungo krisi ekonomikoak ere, 1980. hamarkadan bizi ziren antzerako ondorio soziokulturalak sortzen ari ditu. Langabezia, miloika familia eta norbanakoen mehatxua larria da hauek, pobrezia egoera batera bidaltzen ari dituen. Marginazio egoera, berriz ere, orain arte sisteman parte hartzen zuten norbanakoengan ematen ari da. Ondorioz, mundu osoan, geroz eta pertsona gehiago marginazio egoera batean bizi dira. Marginazioa ez da urruneko egoera bat klase ertainarentzat, mehatxu erreala baizik izan ere sistemaren malgutasunaren ondorioz, edozein momentutan estatus aldaketa bizi dezake.

Egoera honen aurrean, Zerbitzu Sozialek, Ongizatearen Estaturaren erramintak bezala bete duten papera luze kritikatu izan da. 1920 hamarkadaren amaieraldean sortu zirenetik (Ipar Amerikan), pertsona marginatu, baztertu eta dirugabeen kopurua handituz joan da. Errealitate honek, hauen funtzioa kolokan jartzen du. Zalantza zera da, bilbapen burokratiko honen benetako helburua pobrezia gutxitzea eta marginazioa gainditzea da ala haren benetako funtzioa gizatalde hauek geldiaraztea eta honela, anabasa soziala ekiditzea? Ikuspegi kritikoez baieztape honen alde daude. Estatuak sortutako Zerbitzu Sozialek hainbat pertsona eta gizatalde haren menpe mantentzen laguntzen du. Helburua, sistema osoa (sistema kapitalista dena eta merkatuaren logikaren bitartez arautzen dena) ukitua ez izatea eta pertsona eta talde hauek, integratuentzat (ertain eta goi klasea) mehatxu bat ez izatea da.

Aurreko egoera ekiditzeko hainbat proposamenek, hitzarmen sozial baten beharraz hitzegiten dute. Ez dute konpartitzen klase ertainak eta goikoak beraien interesak defendatzeko, beheko klaseetara eta bereziki, marginatuei zuzendutako erramintak sortzearen ideia. Konponbidea integrala, osoa eta beteratua izan behar du eta ez politizatua, gizatalde bakar baten onurarako bakarrik (klase ertaina).

Beste proposamen bat, eskuhartze sozialek norbanakoak bere osotasunean kontutan hartu behar dutela da, hau da, beraien egoera aztertzea. Ez da gauza bera gutxi baztertua bizitzea edo zaurkortasun egoera batean egotea. Erlazio zuzena dago bi egoeren artean, normalean, denbora kontua da zaurkortasun egoera batek bazterketa egoera batean bukatzea. Horregatik, eskuhartze batzuk bazterketa gainditzera zuzendu behar dira eta beste batzuk berriz, zaurkortasuna lantzerako. Hauen kasuan gainera, eskuhartze egoki bat ezinbestekoa da berriz ere gizartean barneratzeko eta baztertzeko egoeratik aldentzeko.

Pertsona eta gizataldeen gizartaratzea ezin da bilakatu hauen egoera bereizgarrian. Honek, beraien nortasunean eragina izango baitu eta azkenean, gizartaratu batean bilakatu daitezkelako (eta ez gizaki batean). Ezinbestekoa da gizartaratzea prozesua bat izatea, pertsonen bizitzan garai bat baino ez izatea eta amaiera izatea. Gizartaratzea egoera bat izatea, Zerbitzu Sozialen euspen sozialaren errola konfirmatzen baino ez dute.

Ezinbestekoa da, baita ere, zaurkortasun egoeran edo arriskuan bizi diren pertsona edo gizatalderekin eskuhartzeak egitea hauen bazterketa ekiditzeko. Horretarako, eskuhartzeak beste mota batekoak izan beharko dira; enplegu politikak, etxebizitza, erlazio familiarren kudeaketa, kualifikazioa hobetzea, e.a. Hau da, eskuhartze integrala izan beharko du non modu koherente batean tratatzen diren arlo guztiak.

Ondorioz, bazterketa soziala kate luze baten amaieran dagoen errealitatea da. Zerbitsu Sozialen ardura, hauengan eskuhartze egokia egitea da. Bazterketa prozesu baten moduan ulertu behar da. Gizartegintza beharrezkoa izango da bakarrik, bazterketa soziala dagoen kasuetan baina edozein kasutan, honen iraupena mugatua izan behar du eta sekulan, pertsona horien egoera arruntean bilakatu. Bazterketa eta gizartegintza ez dira pertsonen nortasunaren ezaugarrietan bilakatu behar. Hauek, beraien bizitzaren fase edo garai bat izan beharko du.

4.6. Bibliografia

- CASTEL, Robert. "De la exclusión como estado a la vulnerabilidad como proceso" In: VV.AA. *Archipiélago: cuadernos de crítica de la cultura Nº 21*. Board; Barcelona, 1995.
- DENEUVE, S.; REEVES, Ch. "El modelo norteamericano. Reflexiones sobre los mecanismos de control social" In: VV.AA. *Archipiélago: cuadernos de crítica de la cultura Nº 21*. Board; Barcelona, 1995.
- LIZCANO, E. "Para una crítica de la sociología de la pobreza" In: VV.AA. *Archipiélago: cuadernos de crítica de la cultura Nº 21*. Board; Barcelona, 1995.